



gizonduz



Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco



berdintasunak gizonago egiten zaitu

2008ko azaroa



3.000 gizonek sinatu dute Gizonduz-en Eskutitza



3.000 gizon inguruk sexu berdintasunaren aldeko konpromisoa adierazi dute Euskal Gizonen Eskutitza, berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren kontra sinatuz. Juan José Ibarretxe lehendakariak Ajuria Enean jendaurrean egindako ekitaldi batean aurkeztu zuen eskutitza, 2008ko apirilaren 23an, euskal gizarteko hainbat eremutako beste 27 gizonekin batera. Ekimena Emakundek bultzatutako eta lehendakaria buru duen Gizonduz programaren barruan kokatzen da, eta gizonetakoak sexuen arteko berdintasunaren alde kontzientziatzeko eta beren parte-hartzea eta inplikazioa bultzatzeko sortu zen. Helburua 10.000 euskal gizonen eskutitzarekin bat egin dezaten lortzea da.

Horretarako, udatik aurrera hainbat herritan informazioa hedatzeko eta sinadurak jasotzeko karpak jarri dira. Abiapuntua Gasteiz izan zen, jaietan, non blusak eta Zeledon ekimenaren alde agertu baitziren jendaurrean gutuna sinatuz. Era berean, Bilboko Aste Nagusian eskutitzarekin bat egin zuten aurten pregoilari izan den Aitor Elizegi sukaldariak, Bilboko konpartsero batzuk, Iñaki Azkuna alkateak eta udaletxeko hainbat ordezkariak. Hortik aurrera, Gizonduz karpa Basauritik ere pasa zen eta laster Abadiño, Arrigorriaga, Derio, Lemoiz, Mungia, Santurtzi, Sopela edo Zarauzko udalerrietatik ere pasako da. Euskadiko herri guztietako gizonen sexu berdintasunaren aldeko aldaketa eta konpromisoaren beharra helaraztea xedea.

3.000 hombres ya han firmado la Carta de Gizonduz

Más de 3.000 hombres han firmado ya la *Carta de Hombres Vascos por la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres*. El texto, presentado el pasado 23 de abril de 2008 en Ajuria Enea por el Lehendakari Juan José Ibarretxe junto con otros 27 hombres de diferentes ámbitos de la sociedad vasca, se enmarca en la iniciativa Gizonduz, impulsada por Emakunde y liderada por el Lehendakari para promover la concienciación, participación e implicación de los hombres a favor de la igualdad de sexos en la Comunidad Autónoma de Euskadi. El objetivo es lograr el compromiso de al menos 10.000 hombres vascos.

Para lograrlo, el pasado verano se empezaron a instalar carpas de información y recogida de firmas en diferentes localidades, empezando por Gasteiz durante las fiestas de la Virgen Blanca, donde Celedón y una representación de los blusos apoyaron la iniciativa firmando la Carta en un acto público. En Bilbao, el cocinero Aitor Elizegi, pregonero de la Aste Nagusia bilbaína, se adhirió a la Carta, así como varios compañeros, el alcalde Iñaki Azkuna y varios representantes municipales. Posteriormente, la carpa Gizonduz ha visitado otros municipios como Basauri y en breve también estará otros como Abadiño, Arrigorriaga, Derio, Lemoiz, Mungia, Santurtzi, Sopelana o Zarautz, con el objetivo de trasladar la necesidad de cambio y de compromiso a favor de la igualdad a los hombres de todos los pueblos del territorio vasco.


El objetivo es lograr el compromiso de al menos 10.000 hombres vascos


Gizonduz-ek UrteBete Egin du

2007ko azaroan aurkeztu genuen Gizonduz, Emakunde bultzatutako eta lehendakaria buru duen ekimen aitzindaria eta berritzailea. Ekimenak gizonek gehiago inplikatu nahi ditu emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde. La urtebete pasa da Gizonduz abian jarri zenetik eta, harez geroztik, hainbat jarduera burutu dira.

Ekimenari hasiera emanez, 2007ko azaroaren 5ean eta 6an Donostian "Maskulinitasuna eta eguneroko bizitza" nazioarteko Kongresua egin zen. Bertan 400 lagun bildu ginen eta hainbat herrialdetako aditu ugari parte hartu zuten. Azaroan "Berdintasunak gizonago egiten zaitu" kanpaina ere egin zen, gizontzat beren-beregi, emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko konpromisoa har zezaten sustatzeko. Kanpainaren euskarria telebistarako iragarki bat izan zen eta ETB-1ean eta ETB-2an agertu zen.

2008ko apirilean Euskal Gizonen Eskutitza, berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren kontra plazaratu zen. Eskutitza hainbat gizonen babestu dute, besteak beste, politika, kultura, kirola eta hedabideen munduko gizonak. Azken urteetan gure Autonomia Erkidegoan berdintasunaren inguruan eta maskulinitasun berrien inguruan lanean diharduten gizonak ere babesa eman diote eskutitzari. Aurkeztu zenetik hainbat sentsibilizazio-jarduera egin dira hura zabaltze aldera. Horien artean honako hau nabarmendu daiteke: Gasteizko, Bilboko eta Basauriko jaietan sinadurak jasotzeko karpa bat jarri zen eta, hainbat pertsona ezagunek sinatu zuten eskutitza, hala nola, Zeledonek eta Bilboko jaietako pregoilariak. 2009. urtearen amaierarako eskutitza 10.000 gizonen sinatzea da helburua. Lehenengo sei hilabeteetan dagoeneko 3.000 sinadura inguru jaso dira

2008ko apirilean Gizonduz-en web gune berezia (www.euskadi.net/gizonduz) sortu zen Eusko Jaurilaritzako web orrian. Bertan, hainbat euskarritan ekimenari buruzko informazioa dago, bai eta elkarrizketak, dokumentazioa, bibliografia, web orrietarako loturak eta abar. Halaber, 2008ko uztailetik abian da Gizonduz-en bloga. Hiritarrei zabaltzen zaien gunea da, iritzia emateko eta hausnarketak eta iradokizunak egiteko aukera izan dezaten berdintasunari, gizoni eta maskulinitasun berriei lotutako gaien inguruan.

2008ko irailean aitentzako Gizonduz motxila aurkeztu zen. Motxilak emaginen bitartez eta adopzioaren eskumena duten foru aldundietako organoen bitartez banatuko dira. Motxiletan hainbat sentsibilizazio-material daude. Material horietan jarraibideak ematen dira zaintzari eta aitatasunari buruzko zenbait alderdiren gainean, bai eta gako batzuk ere, balore ez-sexistak transmititzeko garaian aitaren irudiak duen eraginari buruzko gogoeta egiteko.

Horiek horrela, Gizonduz ekimenaren lehen urteko ibilbidea oso positibotzat jotzen dugu eta horrek ilusio eta energia handiagoa ematen digu 2009. urteari begira ditugun erronkei aurre egiteko. Izan ere, datorren urtean Emakunde gogotsu ekingo dio lanari dagoeneko hasitako jarduerak sendotzeko (euskal gizonen eskutitza eta web gunea, kasu) eta, batez ere, neurri berriak abiarazteko: besteak beste, berdintasunaren aldeko gizonen elkarreentzako diru-laguntzak emango ditu, gizoni beren-beregi zuzendutako prestakuntza plana kaleratuko du eta Autonomia Erkidegoko Administrazioako langilei aitatasunarekin eta zaintzarekin lotutako baimenak hedatzea bultzatuko du, bai eta aipatu baimenak gainerako erakunde publikoetan eta sektore pribatuan ezarri daitezten sustatu ere.

Gizonduz-en ekimenak berdintasunaren aldeko bidean gure erkidegoan gizonen masa kritiko bat lortzen lagundu nahi du. Horiek tradiziozko maskulinitate zalantzan jarri beharko dute eta aukera-berdintasun gehiago hurbiltzen diren ereduaren alde egin beharko dute, erreferente izan daitezten beste gizon batzuentzat eta, bereziki, datozen belaunaldientzat.



Izaskun Moyua eta Arantza Madariaga, Emakundeko zuzendaria eta idazkari nagusia.

Primer Aniversario de Gizonduz

En noviembre de 2007 presentamos Gizonduz, una iniciativa pionera e innovadora impulsada por Emakunde y liderada por el Lehendakari, dirigida a promover una mayor implicación de los hombres a favor de la igualdad de mujeres y hombres. Ha transcurrido, por tanto, casi un año desde que Gizonduz se puso en marcha y durante este tiempo han sido muchas las actividades que se han llevado a cabo.

Como primera actuación los días 5 y 6 de noviembre de 2007 se celebró en Donostia-San Sebastián el Congreso internacional sobre masculinidad y vida cotidiana en el que se dieron cita un notable número de personas expertas de diferentes países y al que asistieron alrededor de 400 personas. Durante ese mismo mes se desarrolló también la campaña de sensibilización "La igualdad te hace más hombre", dirigida específicamente a los hombres para promover su compromiso activo a favor de la igualdad de mujeres y hombres, y que consistió en la emisión de un anuncio televisivo en ETB-1 y ETB 2.

En abril de 2008 se presentó públicamente la Carta de los hombres vascos por la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres. La Carta ha sido apoyada, entre otros hombres, por representantes del mundo de la política, la cultura, el deporte, los medios de comunicación, así como por hombres que durante los últimos años han creado grupos de reflexión y han trabajado en nuestra Comunidad en torno a la igualdad y a las nuevas masculinidades. Desde su presentación pública se han ido realizando diferentes actividades de sensibilización y difusión de la misma, entre las que cabe destacar la instalación de una carpa para la recogida de firmas en las fiestas de municipios como Vitoria-Gasteiz, Bilbao o Basauri, y la firma de la Carta por parte de personajes emblemáticos como el Celedón o el pregonero de fiestas de Bilbao. El objetivo es que para finales de 2009, 10.000 hombres vascos hayan suscrito la Carta y en los primeros seis meses ya se han recabado unas 3.000 firmas.

También en abril de 2008 se creó un espacio web específico para Gizonduz en la página web del Gobierno vasco (www.euskadi.net/gizonduz), con amplia información relativa a la iniciativa en diferentes soportes, así como secciones con entrevistas, documentación, bibliografía, enlaces a web de interés, etc. Además, desde julio de 2008 en dicha web está en funcionamiento el blog de Gizonduz, un espacio abierto a la ciudadanía para que pueda plasmar sus opiniones, reflexiones y comentarios sobre cuestiones de actualidad relacionadas con la igualdad, los hombres y las nuevas masculinidades.

En septiembre de 2008 se presentó la mochila Gizonduz para padres. La mochila se está distribuyendo, a través de los y las matronas y de los órganos competentes de las diputaciones forales en materia de adopción, a los hombres que van a ser padres biológicos o adoptivos. En ella se incluye un conjunto de materiales de sensibilización, dirigidos a dar pautas sobre cuestiones relacionadas con el cuidado y la paternidad, así como a aportar claves para reflexionar sobre la influencia de la figura paterna en la transmisión de valores no sexistas.

Así pues, la valoración de este primer año de andadura de la iniciativa Gizonduz no puede ser más positiva y ello nos anima a afrontar con más ilusión y energía si cabe, los retos que de cara a 2009 se nos plantean. Durante este año el Instituto centrará sus esfuerzos en consolidar actuaciones ya iniciadas en 2008 como la Carta de los hombres vascos o la web de Gizonduz y, sobre todo, en poner en marcha nuevas medidas como subvenciones a asociaciones de hombres por la igualdad, un plan de sensibilización y formación específico para hombres o la ampliación de los permisos relacionados con la paternidad y el cuidado para los trabajadores de la Administración de la Comunidad Autónoma y su aplicación al resto de instituciones públicas y privadas.

Con todo este trabajo queremos ir configurando en nuestra Comunidad una masa crítica de hombres implicados en pro de la igualdad que cuestionen la masculinidad tradicional y apuesten por modelos más igualitarios que sirvan de referente para otros hombres y, sobre todo, para las siguientes generaciones.

Elkarrizketa



Aitzol Aramaio:
"Dokumentalak berdintasunak merezi duela frogatzen du"

Aitzol Aramaio zinema-zuzendaria da. Hainbat film labur zuzendu ondoren, tartean oso saritua izan zen Terminal filma, joan den urtean bere lehenengo film luzea aurkeztu zuen, Un poco de chocolate, Unai Elorriagaren Un tranvía en SP eleberri ospetsuan oinarritutakoa. Aramaio izan da Gizonduz motxilak barruan dakarren Aitak dokumentalaren zuzendaria. Oso une berezian egindako lana izan da, zuzendaria oso laster aita izango baita.

Nola deskribatuko zenuke Aitak dokumentala?

Gizon batzuek beraien seme-alabekin dituzten esperientziei buruz hitz egiten erakustea zen helburua. Guraso eta lagunekin duten harremana edota umeak edukitzerakoan sentitutakoa ere azaldu dute. Askok harritu gaitu euren bihotza eta pentsamendua horrenbeste zabaldu izanak. Hunkituta agertzen dira, erdi negarrez... Ez dira superman-ak, baizik

eta euren zalantzak, beldurrak eta alaitasunak erakusten dituzten pertsona normalak. Pelikulak doinu alaia dauka eta gizatasuna azpimarratzen du. Ez dugu doktrinarik ezarri nahi, baina oso aberasgarria izan daiteke.

Zer sentiarazi nahi diezu euskal aitei?

Lehenengo aldiz ikusi nuenean barre asko egin nuen. Jendea oso identifikatuta sentituko da. Gizonok ez dugu normalean gure alde ahula ateratzen, baina dokumentalean euren pozak eta ahultasunak agertzen dira. Gainera, aitatasuna gauza polit bat bezala erakusten da; aitek seme-alabak edukitzea merezi duela ikusiko dute. Zenbait pentsamolde ere aldatuko dituzte, pelikulak hainbat galdera sorraziko dizkielako, bai eta euren alde sentikorra ukitu ere.

Zu aita izango zara. Ze eragin izan du zugar pelikula egiteak?

Konturatu naiz aita izatea ez dela hain zaila, eta jasoko dudana eman beharrekoa baino askoz gehiago izango dela. Ez daukat beldurrik, zoragarria izango baita. Pelikulak berdintasunaren aldeko bidea hartzea merezi duela frogatzen du. Hainbat gizonek nola jokatu eta sentitzen duten ikusteak inbidia puntu bat eman dit. Ulertzen duzu zenbat galduko duzun berdintasunaren alde egon ezean. Ez dut izan nahi etxera berandu heldu eta seme-alaba zein bikotearekin ia denborarik pasatzen ez duen aita. Oso arraroa sentituko nintzateke seme alabek amarekin harreman intimoagoa daukatela ikustean. Nik harreman estua izan nahi dut, umeek nirekin ere euren gauzak konpartitu dezaten. Gizonak badauzkagu joera kultural batzuk, baina jarrera berdinzaleagoa izaten saiatzearekin bakarrik asko lortuko dugu. Dokumentaleko gizonak, hobeto edo okerrago, pausu hori eman dute.

Gizonen euren sentipenak konpartitzeko eduki dezaketen beldurra desagerraraziko du?

Gauza askori buruz hitz egiteko aitzakia ederra izan daiteke. Aitak, taldean ikusteko pelikula ere da. Lagunen esparrutan mutilei ez zaie hainbeste galdetzen nola dauden edo nola sentitzen diren, eta gizonak badaukate gauza horiek kontatzeko beharra, nahiz eta heziketagarri batzuei gehiago kostatu. Bakarka ere ikusi behar da, sentimendu intimoei buruz hausnartzeko eta gure buruari hainbat galdera egiteko: nola izan da aitarekiko harremana, gure beldurrak semeari pasatzeko kezka...

Jarrera eredugarria izango al da beste gizontzat pertsonaia ezagunak zaintza eta etxeko lanetan aritzen ikustea?

Jende ezagunak beti sortzen du interesa. Gainera, hain lanpetuta dabiltzan gizonen euren aitatasuna eta maskulinitasuna nola bizi duten erakusten du. Garrantzitsuena aitatasun eredu anitzak ezagutzera ematea da.

Nola bizi izan duzu hamaika gizonen sentipen intimoen lekuko izatea?

Lan talde osoarekin benetan gustura egon gara. Azpimarratu behar dut Ritxar Bacete eta Josetxu Riviereren [gidoilariak eta ekoizleak] lan bikaina. Elkarrizketak grabatzerakoan, batzuetan isilik eta hunkituta geratu naiz, baina beste batzuetan monitorea urrundu behar izan ditut nire barrea entzun ez zedin. Gizonak hitz egiteko prest etorri ziren eta hedatu nahi zituzten hausnarketak pentsatuta zekartzaten. Bacetek egiten zituen galderek pisu handia izan zuten, gizonak oso harrিতa geratu baitziren. Zenbait gairi buruz ez zuten inoiz ezer pentsatu edo hausnartu, eta berezko aitorpenak egin behar izan zituzten. Erantzun horiek izan dira indartsu eta egiazkoenak.

Los hombres que van a ser padres reciben la mochila Gizonduz




La mochila Gizonduz, que incluye materiales de sensibilización sobre paternidad y masculinidad, ha empezado a llegar desde octubre a los hogares de los hombres que van a ser padres. A través de las matronas y de los órganos de las diputaciones forales competentes en materia de adopción, la recibirán unos 20.000 hombres cada año, cifra estimativa del número de niños y niñas que nacen en la Comunidad Autónoma de Euskadi. La puesta en marcha de la iniciativa, que pretende aportar herramientas e ideas para facilitar la reflexión y el cambio hacia una figura paterna igualitaria y corresponsable, ha contado con la colaboración del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco, Osakidetza y las tres diputaciones forales, así como con el patrocinio de Caja Laboral.


El Lehendakari Juan José Ibarretxe presentó la mochila el pasado 12 de septiembre en un acto en Ajuria Enea junto con la Directora de Emakunde, Izaskun Moyua Pinillos. Según explicó la Directora, el formato de la mochila revela de un modo metafórico la necesidad de que la población masculina empiece a compartir el peso de las tareas domésticas y del cuidado que las mujeres vienen asumiendo históricamente. El kit, recalcó el Lehendakari, "aportará claves para reflexionar sobre la influencia de la figura paterna en la transmisión de valores no sexistas". "No hay que olvidar que el nacimiento de un hijo o una hija supone

una situación de cambio en la pareja y, por tanto, una oportunidad para el cambio de los hombres hacia posiciones más igualitarias y corresponsables", abundó.

Ibarretxe confió en que el conjunto de iniciativas del programa Gizonduz sirvan para formar "un ejército pacífico de hombres voluntarios que estén dispuestos a recorrer, junto con las mujeres, el camino hacia una sociedad más justa e igualitaria". Asimismo, auguró que Euskadi se convertirá en un futuro próximo en un referente en el Estado y en el ámbito internacional también en este tema.



Esta iniciativa pretende aportar herramientas e ideas para facilitar la reflexión y el cambio hacia una figura paterna igualitaria y corresponsable



La mochila contiene los siguientes materiales, además de este periódico, todos ellos accesibles también a través de la página web de Gizonduz:

- **Aitak.** Un documental en el que once padres nos muestran su faceta más íntima y desconocida: el mundo de los afectos y del cuidado, con las dudas, miedos, alegrías y contradicciones que se despliegan con especial intensidad alrededor de la experiencia de la paternidad.
- **El secreto de aita.** Un cuento para ser contado y escuchado, que narra la relación que se crea entre un padre y su hijo, y todo lo que se puede aprender y descubrir en una relación de cuidado.
- **Padres en igualdad.** Se trata de una guía sobre el modelo de paternidad igualitaria, que incluye consejos y reflexiones para acompañar a los hombres en estos primeros pasos del camino hacia una paternidad responsable. Están disponibles la versión para padres biológicos y otra para padres adoptivos.
- **Los hombres, la igualdad y las nuevas masculinidades.** Es una guía que aborda la construcción social de las masculinidades y que analiza tanto el modelo de hombre tradicional como los cambios que se están produciendo en muchos hombres hacia posiciones más igualitarias.
- **Berdinometro.** Se trata de un "juego" que permite de una forma divertida comprobar y hacer visible cómo es el reparto de las tareas domésticas en la pareja y facilitar, en su caso, un reparto más equilibrado de éstas.
- **Pegatina para colocar en el coche.** Pretende hacer visible una apuesta personal por una paternidad igualitaria. Se subraya así la importancia de que los hombres asuman la tarea de cuidar de sus criaturas.




Parte har ezazu Gizonduz-en blogean!

Gizonduz-en bloga (<http://blog.gizonduz.euskadi.net>) pasa den uztailetik dago abian. Blogaren bidez, Emakunde gizonen artean berdintasunari buruzko hausnarketak eta debateak partekatze leku bat eskaini nahi du. Juan José Ibarretxe lehendakariaren hitzetan, web leku hau "hiritarrei zabaltzen zaien gunea da euren iritzia emateko eta hausnarketak eta iradokizunak egiteko berdintasunari, gizonen eta maskulinitasun berriei lotutako gaien inguruan".

Jadanik 50 sarrera inguru argitaratu dira, maskulinitasuna, feminismoa, berdintasuna eta, orokorrean, genero gaien buruzko azken albiste berri emateko. Indarkeria sexistaren inguruko gertakari ugari (atxiloketak, erailketak, gaitzespen ekitaldiak...) agertzen dira, eta baita Euskadin emakume eta gizonen arteko egoeraren berri ematen dutenak; aitatasun baimenei buruzko datuak kasu. Gai polemikoenak ere ageri dira, Donostiako danborradan edota Hondarribiko alardean emakumeek parte hartze duten eskubideari buruz hitz egin baita. Albiste bitxiarako lekua badago: adibidez, nazioarteko ikerketa baten datuen arabera, Afrikako Aka tribuko gizonak munduko aitarik onenak direla jakinarazi da.

Euskal erakundeek berdintasuna bultzatzeko antolatzen dituzten ekimenen berri ere ematen du web gune interaktiboak. Gizonduz programak emandako pausok jarraitzen ditu: esaterako, blogaren bidez *Euskal Gizonen Eskutitza, berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren kontra-ren* alde euskal hiri eta herrietan antolatutako sinadura bilketak ageri dira. Blogaren beste helburu garrantzitsu bat da berdintasunaren aldeko gizonen mugimenduaren inguruko informazioa hedatzea. Zarautzen gizon talde berri bat sortuko dela argitaratu da, Zaragozan egindako gizonen lehenengo kongresuaren berri eman da, eta baita Santurtziko Doccas David neska gaztearen hilketa salatze herriko gizonen antolatutako ekimenak jakinarazi ere.

Bloga euskaraz eta gaztelaniaz irakurri eta komentatu daiteke. Edonork iruzkinak atxiki ditzake, erregistratzeko beharrik gabe.



Sabías que en nuestra Comunidad...

- ... los hombres dedican de media al día 1 hora y 32 minutos al trabajo doméstico, mientras que las mujeres emplean 3 horas y 50 minutos
- ... son hombres el 70% de las personas que se suicidan. La tasa femenina de suicidio se sitúa en 3,9, frente al 12,6 de la masculina.
- ... el fracaso escolar es más habitual en hombres: afecta al 20,3% de los alumnos, frente al 18,3% en el caso de las chicas.
- ... del total del personal de administraciones públicas que se ha formado en los cursos sobre igualdad durante 2006 y 2007, sólo un 15% han sido hombres.
- ... los hombres representan un 8% del total del alumnado de los masters sobre igualdad y violencia sexista que ofertan las universidades.
- ... el 79% de los hombres reclama más medidas a favor de la igualdad de sexos.
- ... el 88% es consciente de que dicha igualdad también beneficiaría a los hombres.

... también está en tu mano cambiar esta realidad

www.euskadi.net/gizonduz



Egun indarrean dagoen Norberaren Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoan xedatutakoa betez, Emakunde, Atxikitze Orrian agertzen diren datuak Eusko Jaurlaritzaren fitxategi automatizatuan sartuko direla jakinarazten dizu. Nahi izanez gero, datuak aztertze, zuzentze, kitatzeko eta aurkartzeko eskubidea erabili ahal izango duzu, Legeak ezartzen duen moduan, Emakunde-kosta helbidera idazki bat bidaliz.

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal vigente en la actualidad, Emakunde/ Instituto Vasco de la Mujer le informa que sus datos personales recogidos en el Formulario de Adhesión, van a ser incorporados en ficheros automatizados titularidad del Gobierno Vasco. Si lo desea, puede ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, enviando un escrito a la dirección postal de Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer.

Euskal gizonen eskutitza, berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren kontra

Eskutitza hau sinatzen dugun gizonok badakigu gure gizartean ez dagoela berdintasunik emakumeen eta gizonen artean, ez harremanetan eta ez botere-banaketan, eta femeninoa maskulinoaren menpe jartzen dela. Ondorioz, gizonok hainbat pribilegio dauzkagu: aisialdirako denbora gehiago daukagu; esparru publikoan, politikan nahiz ekonomian botere handiagoa dugu; eta neurri handi batean emakumeek egiten duten etxeko lanaz eta zaintza lanaz baliatzen gara. Aitzitik, gizartea antolatzeke modu honek modu negatiboan eragiten digu, eta gure nortasuna eraikitzeke gizartean eredu izan den tradiziozko gizonen eredu matxistak ez gaitu asetzen, eta gainera, gure izaera garatzeko prozesua baldintzatzen du.

Bidezkoa da egoera aldatzea, emakumeen eskubidea delako, eta gizarte osoaren onerako izango delako, egoera aldatzea onuragarria izango baita gizonentzat ere.

Horregatik, eta sexismoak eragiten dizkigun kalteak gainditzeko asmoz, berdintasuna oinarri duen gizartea eraikitzeke konpromisoa hartuko dugu, banaka nahiz taldean, emakumeek eta gizonen eskubide eta aukera berberak izan ditzagun, eta batzuen eta besteen ekarpenak eta beharrak modu berean balora daitezten. Horretarako **konpromiso hauek hartuko ditugu:**

- Emakumeek sexismoaren aurka egindako aldarrikapenekin bat egingo dugu eta bazterketa sexisten aurka egiten duten borroka oro babestuko dugu, eta bereziki, indarkeria matxista gaitzetsiko. Gainera, jendaurrean eta modu aktiboan gaitzetsiko ditugu halako bazterketa-jarrerak eta ez ditugu onartuko geure inguruan.
- Egoera, esperientzia eta jarrera guztiak haintzat hartuta, berdintasunik gabeko gizarte honi eusten dioten eguneroko balio eta jarrerak berraztertuko ditugu, eta beste gizon batzuei laguntzen saiatuko gara, aldaketa pertsonalen eta gizarte-aldaketen bide honekin bat egin dezaten.
- Geure burua eta besteena zaintzeaz arduratuko gara, pertsonen osasunaren eta segurtasunaren aurkako arrisku-jarrerak bultzatu ordez.
- Etxeko lanak eta familiakoak zaintzeko lanak geuretzat hartuko ditugu, baita gure izaera eraikitzeke bide gisa ere, eta bereziki, zaintzeko baimen, eszedentzia eta lanaldi murrizketek gozatuko dugu.
- Askotariko sexualitatea lortzearen alde egingo dugu, mitorik gabe, konparaziorik egin gabe eta ezer ezarri gabe, elkarrekin gozatu eta elkarri plazera emanaz. Sexualitate librearen eta sexu-aukera zein sexu-orientazio librearen aurkako jarrera ororen aurka egingo dugu.
- Geure nortasuna libreki eraikitzen saiatuko gara, rola eta estereotipoak alde batera utzita, geure emozioak eta sentimenduak osorik garatzeko.
- Indarkeria ez dugu arazoak konpontzeko zilegizko tresna gisa hartuko. Baztertu egingo dugu eta bide baketsuak eta elkarriketa erabiliko ditugu egoera korapilatsuak konpontzeko.

Euskal gizonen konpromisoa berdintasunaren aldeko apustu sendoa da. Beharrezkoa da herritar libre, autonomo, zuzen eta zorientuagoen gizartea eraikitzeke.

Carta de los hombres vascos por la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres

Los hombres que firmamos esta Carta somos conscientes de que vivimos en una sociedad en la que existe una manifiesta desigualdad en las relaciones y en el reparto del poder entre mujeres y hombres y en la que lo femenino se subordina a lo masculino. Como consecuencia de ello, los hombres tenemos determinados privilegios: disfrutamos de más tiempo de ocio, ocupamos la mayor parte del espacio público y del poder político y económico y nos beneficiamos del trabajo doméstico y de cuidado realizado muy mayoritariamente por las mujeres. Sin embargo, esta forma de organización social también nos afecta negativamente y no nos satisface el modelo de hombre tradicional y machista que hemos tenido como referente social en la construcción de nuestra identidad y que condiciona el desarrollo integral de nuestra personalidad.

Consideramos que esta situación debe cambiar por justicia, porque es un derecho de las mujeres, y porque será beneficioso para el conjunto de nuestra sociedad, ya que con el cambio los hombres también ganamos.

Es por ello que, con el deseo de superar los daños que el sexismo ocasiona, asumimos el compromiso personal y colectivo de participar en la construcción de una sociedad igualitaria, en la que mujeres y hombres gocemos de los mismos derechos y oportunidades y en la que las aportaciones y necesidades de unas y otros sean valoradas por igual. Para ello, **nos comprometemos a:**

- Compartir las justas reivindicaciones de las mujeres contra el sexismo y apoyar su lucha contra todo tipo de discriminación sexista y, en especial, manifestar nuestro frontal rechazo a la violencia machista, haciendo pública y activa denuncia de tales conductas discriminatorias y no consintiéndolas en nuestro entorno.
- Replantearnos desde nuestras diversas realidades, experiencias y actitudes los valores y comportamientos cotidianos que sostienen esta sociedad desigual y animar y acompañar a otros hombres en este camino de cambios personales y sociales.
- Valorar nuestro propio cuidado y el de las demás personas, en lugar de fomentar actitudes de riesgo que van en contra de la salud y de la seguridad personal.
- Asumir de forma igualitaria el trabajo doméstico y de cuidado de otras personas como parte no sólo de nuestra responsabilidad, sino de nuestro crecimiento como individuos y, en particular, a hacer uso de los permisos, excedencias y reducciones de jornada para el cuidado.
- Avanzar hacia una sexualidad diversa, sin mitos, sin comparaciones ni imposiciones, desde el disfrute y el placer compartido, y oponernos a toda conducta que atente contra el libre ejercicio de la sexualidad, incluida la libertad de opción y orientación sexual.
- Intentar construir nuestra identidad personal libremente, al margen de roles y estereotipos, así como desarrollar de forma plena nuestra vida emocional y afectiva.
- Desterrar el uso y la legitimación de la violencia como forma de solucionar los problemas y buscar formas pacíficas y dialogadas de abordar y resolver las situaciones conflictivas que nos encontremos.

Nuestro compromiso como hombres vascos es una firme apuesta por la igualdad. La queremos y necesitamos para construir una sociedad integrada por personas más libres, más autónomas, más justas y más felices.

Eskutitza Internet bidez sinatu daiteke (www.euskadi.net/gizonduz), bai eta erantsitako txantiloia bete eta Emakundera bidaliz ere.

La Carta puede ser suscrita, tanto a través de Internet en www.euskadi.net/gizonduz, como cumplimentando la plantilla que se adjunta y remitiéndola a Emakunde.

Euskal gizonen eskutitza, berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren kontra Carta de los hombres vascos por la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres

ATXIKITZEKO ORRIA / FORMULARIO DE ADHESIÓN

Identifikazioa (NAN) / Identificación (DNI):

Izena eta Abizenak / Nombre y Apellidos:

Jaiotako urtea / Año de Nacimiento:

Helbide elektronikoa / E-Mail:

Sinadura / Firma:

Mesedez, bete orria letra argi eta bidali Emakundera:
Por favor, rellenar con letra clara y remitir a Emakunde:

Emakunde/Euskal Erakundea
Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer
Manuel Iradier, 36
01005 Vitoria-Gasteiz

